

NIKO ETA AMONA INTERGALAKTIKOA

LAPURTUTAKO, BIZKOTXOAREN KASUA

Abel
mutxategi



erein

NIKO ETA **AMONA**
INTERGALAKTIKOA

Obra honen edozein erreproduzio modu, banaketa, komunikazio publiko edo aldaketa egiteko, nahitaezkoa da jabeen baimena, legeak aurrez ikusitako salbuespenezko kasuetan salbu. Obra honen zatiren bat fotokopiatu edo eskaneatu nahi baduzu, jo CEDROra (Centro Español de Derechos Reprográficos, www.conlicencia.com; 91 702 19 70 / 93 272 04 47).

Liburu honek Eusko Jaurlaritzako Kultura eta Hizkuntza Politika Sailaren dirulaguntza jaso du.

1. argitalpena: 2025eko ekainean

Liburuaren diseinua eta maketazioa:

A. Beltza

Irudiak:

Iván Landa

© Abel Amutxategi

© EREIN. Donostia 2025

ISBN: 978-84-1093-033-9

L.G.: D 536-2025

EREIN Argitaletxea. Tolosa Etorbidea 107

20018 Donostia

T 943 218 300

erein@erein.eus

www.erein.eus

Inprimatzailea: Gertu inprimategia

Zubillaga industrialdea, 9

20569 Oiñati, Gipuzkoa

T 943 783 309

gertugrafika@gmail.com

www.gertu.net



Liburu hau inprimatzeko erabili den papera ekologikoa da eta modu jasagarrian kudeatutako basoetatik dator.

ABEL AMUTXATEGI

NIKO ETA **AMONA**
INTERGALAKTIKOA

*Lapurtutako
bizkotxoaren kasua*

Ilustrazioak: Iván Landa

erein



Noizbait pentsatu al duzu zer egiten duen amonak elkarrekin ez zaudetenean?

Egun osoa krocketak prestatzen eta josten ematen duela pentsatuko duzu, agian.

Eta baliteke zure amonaren kasuan hala izatea, jakina, baina baliteke zure amonak zuk uste duzuna baino bizitza askoz ere interesgarriagoa izatea ere.

Niko deitzen naiz eta hamar urte ditut. Aita Esteban daukat, eta ama Isabel. Eta biak dira lorezain afizionatu amorratuak. Azken datu hau oso garrantzitsua izango da orain kontatuko dizudan istoriorako.

Gurasoek asteburu hartan amonarenean utzi izan ez bainindute, nik ez nukeelako haren sekretua sekula igarriko.

Amona Gregori emakume maitagarria zen. Maiz bisititzen genuen astean zehar, eta ikastolara bila ere etortzen zitzaidan gurasoek berandura arte lan egin behar zutenean. Baina larunbata heltzen zenean, lurrak irentsita bezala desagertzen zen. Eta, hori gutxi balitz, guri ere ez zigun bisitarik egiten uzten.

Jokabide bitxi hartara ohituta geunden, baina aita eta ama oso ekitaldi garrantzitsu batera joatekoak ziren asteburu hartan. Haiek zaindutako tipula erraldoi bat suertatu zen Gurikaitzeko nekazaritza-azokako txapelketan finalista, eta hura ez zen nola-halako aukera. Lorezain famatuak bihurtuko ziren handik aurrera!

Baina hara joan ahal izateko, *trikimailutxo* bat erabili behar izan zuten amonak asteburu hartan ni zain nitzan konbentzitzeko.

Txirrin!

Telefonoak jo zuen amonaren etxean.

—Bai, esan?

—Neu naiz, amona —erantzun zuen amak.

—Ai, neure bihotzeko alaba. Hau bai gorputz txarra nirea! Oraintxe bertan egon naiz ohean sartzekotan.

Amona Gregorrik gaixo itxurak egiten jarraitu zuen denbora batez, baina, egia esan, ez zen aktore batiere ona.

—Minututxo bat baino ez da izango, amona, ez moztu –eskatu zion amak.

Kexu batek zeharkatu zuen linea telefonikoa.

—Zainduko al zenuke Niko asteburu honetan, faborez? Gurikaitzeko nekazaritza-azokara gonbidatu gaituzte Esteban eta biok, eta ez dugu huts egiterik.

Amona Gregori aitzakia egoki baten bila ibili zen segundo batzuetan.

—Badakizu asteburuetan oso lanpetuta ibiltzen naizela –esan zuen.

—Garrantzitsua izango ez balitz, ez nizuke eskatuko –ekin zion amak—. Ba al dakizu Gurikaitzeko azokan finalista izateak zer esan nahi duen? Fama-tuak izango gara!

Amona Gregori beste gezur galant bat esateko prestatu zen telefonoz beste aldera.

—Atsegin handiz zainduko nuke Niko, alaba maitea, baina... arratsalde honetan lagunak datozkit bisitan –esan zuen.

—Nikok ez dizu batere enbarazurik egingo –berrekin zion amak—. Liburu bat irakurtzen utzi deza-kezu. Edo puzzleren bat egiten. Edo telebista ikusten. Edo marrazten. Badakizu oso mutiko zintzoa dela.

Okariz jaunaren katuari aitaren bizarra kentzeko makinarekin ilea moztu nionekoa gogoratu nuen. Edo ingeleseko andereñoaren autoko ihes-hodian banana

bat sartu nuenekoa. Edo mikrouhin-labearen barruan metalezko sardeska bat sartzean zer gertatuko zen neure buruari galdetu nioneko hura.

OHAR GARRANTZITSUA!

Etzaitez inoiz saiatu honetan zure etxean.
Suhiltzaileek oraindik gogoan dute
sardeskaren esperimentuaren
UME ARRAROA.

Baina oro har bai: mutiko zintzo-zintzoa nintzen.
—Benetan poztuko ninduke horrek, alabatxo —jarraitu zuen amonak—. Baina oraintxe bertan ez nago etxean —inprobisatu zuen.

—Seguru?

—Jakina! Nik jakingo ez dut ba...

—Leihotik ikusten zaitut, amona.

—Nola?

Din-don!

Amona Gregoriren etxeko txirrina izan zen hori.
Telefonoa oraindik belarran zuela eta ahoa boro-bil perfektu batean irekirik zabaldu zuen atea.

—Agur, seme —esan zuen amak.

—Amonari obeditu —esan zuen aitak.



Aitak eta amak bekokian muxu arin bana eman
eta amonaren etxe barrura bultzatu ninduten.

Amona Gregorik ahoa itxi zuenerako, nire gura-
soen autoa urrun zegoen jada.

Eta ni etxean hartu behar izan ninduen nahitaez.



Behin harridura pasatuta, amona Gregorik txokolatea prestatu zuen askaltzeko. Eta amona Gregorirena ez zen nola-halako txokolatea, ez pentsa. Gourmetik finenak ere txunditzeko moduko mirari likidoa zen hura.

Eskua luzatu nuen amonak katiluak mahai gainean utzi bezain pronto, baina berak kolpetxo suabe batekin geldiarazi ninduen.

—Ez horren azkar, gaztetxo —esan zuen—. Txokolatea beroegia dago oraindik.

Amona Gregorik gozo-gauzez beteriko plater bat ere ekarri zuen. Pastak, madalenak, galletak... Denetarik

zegoen bertan! Amona nire ondoan eseri eta besoak gurutzatu zituen, txokolatea noiz hoztuko zain. Gero hasperen egin zuen. Eta eskuineko hankarekin etengabeko gorabehera urduri batean hasi zen, zaldi erotu bat izango balitz bezala.

Bzzzzz!

Burrunba bat entzun eta argi urdin batek dir-dir egin zuen amonaren erlojuaren pantailan. Erloju hura ikusten nuen lehen aldia zen. Eta, egia esan, haren ukitu modernoa ez zetorren bat amona Gregoriren soineko lorehunarekin.

Nondik atera ote zuen erloju katxarro hura?



Amonak pentsamendua irakurri omen zidan, alboetara disimuluaz begiratu eta erlojua soinekoaren mahuka azpian ezkutatu zuelako.

—Amona –saiatu nintzen.

—Bai, maitea?

—Erloju hori...

Zast!

Amonak madalena osoa sartu zidan ahoan ninjamugimendu azkar batekin, ni isilarazteko.

—Zure lagun Sararen gurasoen okindegian erosi ditut hauek. Bai goxoak, ezta?

Madalena irentsi nuenerako, amonaren erlojuak dir-dir egiteari utzia zion jadanik. Amonak lasaitasun ederra hartu zuen hori ikustean, baina berriro ernegatu zen pasabideko telefonoak jo zuenean.

Txirrin, txirrin, txirrin...

—Ez duzu erantzun behar, amona?

—Bai, noski –esan zuen.

Baina, aulkitik altxatu eta telefonoari erantzun beharrean, amonak eztarria garbitu eta bere txokolateari eman zion beste zurrupada bat.

Telefonoak jotzen jarraitu zuen.

Gero eta ozenago, gainera.

Amona txintik ere esan gabe altxatu, telefonoaren kableari tenkada indartsu bat eman, eta hormatik erauzi zuen.

Orduan, bai, deia eten egin zen.

Baina «botaidazu-txokolate-apur-bat-gehiagomese dez» esateko denborarik izan baino lehen, telefonoa berriro hasi zen jotzen, kablerik gabe ere.

Erotzekoa zen!

Amona Gregorik purrustada egin eta egongelako atea kolpez itxi zuen. Gero irratia piztu eta diala mugitu zuen gartsuki, musika apur bat aurkitu zuen arte. Bolumena topera igo zuen. Eta gero mahai ondoan eseri zen berriro, atzamarrekin irratiko doinuaren erritmoari jarraituz ezer gertatu ez balitz bezala.

—Ondo al zaude, amona?

—Jakina. Nola egongo naiz ba?

Amonak sabaira altxatu zuen begirada, eta mahai gainean tarrapataka jarraitu zuen, axolagabe. Interferentzia batzuek musika eten eta ahots sarkor bati bide eman zioten arte.

—Bat, bi, hiru? Bat, bi, hiru? Bai? Bai? Entzuten al dit norbaitek?

Ahotsaren jabeak eztarria garbitu zuen jarraitu baino lehen.

—Flint Komandantea amona Gregoriri, Planetarteko Konfederaziotik deika. Hor al zaude, amona Gregori?

Amonak eserlekutik malguki batek bultzatuta bezala jauzi egin eta irratia amatatu zuen, ahots bitxi hari hitz egiteko aukera gehiagorik eman gabe.

—Ze demontre izan da hori, amona? —galdetu nuen.

—Zer izan da... zer?

—Irratian zure izena esan dute oraintxe bertan.

—Benetan? Ez naiz konturatu ere egin —zuritu zuen bere burua amonak, gaia aldatu baino lehen—. Zure txokolatea bukatu al duzu?

Azken begirada bota nion neure katilu hutsari (ai, ene txokolate maitea), eta buruarekin esan nion baietz.

—Orduan zoaz komunera eta garbi ezazu mutur zikin hori, ea zure aurpegia aurkitzen duzun txokolate horren guztiaren azpian.

Amonak bere aldarterik zorrotzena ateratzen zue-nean, hobe zen obeditzea. Aulkia erretiratu nuen, beraz, eta komunera joan nintzen aurpegia garbitzera. Is-pilu aurrean nengoen, txokolateak utzitako bibote dotorea miresten, eta irratiko ahots hura etzun nuen berriro.

—Ba al dago inor?

Ahotsak oihartzun metalikoa zuen oraingo honetan.

—Entzuten al dit norbaitek?

Ingurura begiratu nuen, aurpegia oraindik txokolatez zikinduta nuela. Komuneko tapa azpitik argi berde distiratsu bat irteten zen, eta hori ez zen batere normala. Desinfektatzaile indartsuegia erosi ote zuen amonak supermerkatuan?

—Erantzungo al dit norbaitek, arren?

Komuneko tapa altxatu nuen, jakin-minak bulztatuta. Argi berdeak ondo definitutako zutabe bat eratu zuen sabaira arte.

—Ufa –bota zuen ahotsak—. Mila esker. Ez dakizu ze itogarria den hain leku estu batean itxita egotea.

Komun-zulo barrura begirada bat bota eta aurpegi moduko bat ikusi nuen ur gainean irudikatua.

Pertsona batena baino, nik bizitzan ikusitako izakirik bitxienarena, hain zuzen ere.

Txapel urdina zuen jantzita. Babarrun itxurako aurpegi luzanga eta begi niniak handitzen zizkieten betaurreko handi-handiak ere bazituen. Zulo ñimiño bi sudur gisa eta belarri txikiak, puntan moztuak eta zorrotz-zorrotzak.

—Amona Gregorirekin hitz egin al nezake, faborez? –galdetu zuen, oso manera onetan.

—Barkatu?

—Amona Gregori –errepikatu zuen—. Zenbakiz erratu al naiz? Ai, ene. Horrek nahaste-borraste hau azalduko luke, noski.

Izakiak begiekin keinu deskonpasatu bat egin zuen (lehenengo begi bat itxiz, eta gero, handik gutxira, bestea ere zarratuz), eta zainzuri egosiak bezain luze eta malguak ziren atzamar batzuk astindu zituen airean. Marra eta irudi ulertezin ugari idatzi zituen bertan, ezpainak mugitzen zituen bitartean.

—Koordenatuak ondo daudela ematen du —jarraitu zuen—. Baina barkatu eragozpenak, jauna, ez nizun enbarazurik egin nahi, benetan.

—Gregori nire amona da —esan nuen azkenik, izaki bitxi hura agertu zen bezain erraz desagertzearen beldur.

—Eta hona etortzeko eskatuko al diozu, arren? —erregutu zidan.

—Jakina.

Hain adeitsua izanik, ez nuen uste izaki hari kasu egiteagatik ezer txarrik gerta zitekeenik.

—Ederto, ba —esan zuen—. Ni portale interdimensional irekitzen joango naiz bien bitartean. Ezin dugu denborarik galdu. Larrialdi baten aurrean gaude, bai horixe!

Izaki bitxi hura aurrerantz makurtu eta etengailu eta palanka sorta bati eragin zion.

—Amona? —deitu nuen, ikaratuta.

Baina bazirudien amona Gregorik ez zidala entzuten.

—Amona?! —errepikatu nuen ozenago.

Eta orduan, bai, amonak bainugelako atea zabaldu eta bertara sartu zen.

—Ondo al zaude, Niko? —galdegin zuen, argi zutabearen erreparatzeko denborarik gabe.

Komuna atzamar salatari batekin seinalatu nuen. Amonaren aurpegia guztiz asaldatu zen argi berde hura ikustean.



—Ez, arren; ez... —erregutu zuen.

Argi berdea biziagotu egin zen. Hasiera batean argitasun suabe bat baino ez zenak bainugela osoa betetzen zuen jada. Argia uzkuritu eta zabaldu egiten zen, nire bihotzaren taupaden erritmora.

—Bainugelatik lehenbailehen irten behar dugu, Niko. Orain!

Amona Gregorik besotik heldu eta tira egin zidan indarrez. Baina argiaren erakarpena menderatzeko egin zituen ahalegin guztiak alferrikakoak izan ziren.

Gure gorputzak uzkuritu, txiki-txiki egin eta hamaika bider murtxikatutako txikleak bezala luzatu ziren.

Orduan argi berdeak komunean barrena xurgatu gintuen.

